

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

Vocal Delegado de la Sección de Lengua Vasca
PEDRO DIEZ DE ULZURRUN

Seigarren urtea — PAMPLONA, Marzo - 1971 — Martxoak. IRUÑA — 61gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

EZ ADIORIK!



1) **Lantegi berriak sortu dira.** Ez gera lehengo nekazari hutsak. Eta Nafarroko lurralde guzitara zabaldu ez ba dira ere, oso sakabanatuak agertzen dira fabrikak. Ez da, beraz, Hiri burua bakarrik aurreramendu hontaz baliatu dena.

2) Bideberritan diru asko sartu da. Elizondotik Tudelara, eta Ziorditik Iruñera-koak irabazi dute gehienik.

3) Bertako semeak ogibidea arkitu dutela ere esan behar. Frantziako mendi-lanetan ez dabil hainbeste euskaldun. Ipar Ameriketako artzai naparrak urritu dira. Gertakizun honek du, batez ere, pozten gure bihotza.

Ilbeltzarekin batera joan zaizkigu biak; eta ixil, joan ere. Zaratan ibili gabe, beren buruz utzi dute kargua. Otsail txikiak bi alki hutsik ukan ditu Nafarroko etxe-nagusian. Martxoak beteko omen dizkigu bi gizon haundiren zu-loak.

—oOo—

Duela zazpi urte sartu ziren Diputazioan. Sarrera herrikoia izan zuten. Gosearen ametsa luzea da ta, ba zen amets Nafarroan. Gure gosea, molde zaharretatik atera ta ekintza berri bati lotzea. Espainiako industri-lanbidetan bazterrera utziak ginela, konturatzen hasiak ginen. Gure nekazalgaok nekeza berekin zuen, eta etorkizun gutxi. Gaizki bizitzeko besterik ez zen. Aipamen haundiko gure bideberrikeri gero ta meharrago gelditzen ari ziren; laister, gurdi-bide. Eta negargarriena, Nafarroko gaztedia herbestera begira bizi zen, odol ixurtze larrian. Kezka hauek buruan, eta laino beltzak begien aurrean, ba zen amets gure artean **Huar-te ta Urmeneta** Diputazioa heltzean.

Denen gogoia egingo duenik ez da munduan; eta Nafarroak behar zituen guziak emateko, sorgin makila ederra dantzatu behar zuten eskuan. Konforma gaitzak izango dira, baina hauek alde batera utzi-ta zazpi urtez egina esan dezagun.

Halare, egin asko delarik, bidean direnak ez dira neke gutxiagorekin lortu. Bi dira etorkizun haundienekoak: bere eginkizun larrienetako diru laguntza jasotzeko esku-bidea, alde batetik; eta Autobide-zabala Tudelatik Iruñara lenbaitlen egiteko erabakia. Bi puntu hauek Madril-en lortu dira. Orain arte, Gobernuak bakarrik edatzen zituen diru-laguntza agiriak; orain, lege, gure Diputazioak ere egin dezake eta eskubide berdinarekin ikusiak dira Diru-etxe guzien aldetik.

EUSKERA

Zazpi urte hauetako gertakizunik larriena, halare, ez dator diruaren eta bizi-bidearen aldetik. Gizona ez da ogiz bakarrik bizi; eta Nafarroak ba du lurra eta diruz landa bere arima. Menderen menderen itotzen zijoan gure nortasun berexiaren arnasa piztu dela esango nuke nik; eta ofizialki gure beste aberastasunen mailan jarri, **euskera**.

Duela bost urte P. de V. aldizkari hau sortu zelarik, euskera jaszea izan zen gure helburua; ahalik eta txukunena jantzi eta ezagutaraztea. Ongi edo gaizki, hortan saiatu gera. Bere ondore pozgarria, Nafarroko euskaltzale-tasun zabal hau izan da.

Ikastolak, beste alde, beren arantza eta guzti, giro



berri sortu digute. Jaiotza guzien erdi-minak ixilian eraman ondoan, haundi-minak jo zuen euskal amaren bihotza; eta lehertzeko zorian ibili du. On eta gaizto, txuri-gorrien arteko borroka erein zuen etsaiak anaien artean. Haurren heziketaren garrantzi haundiko etorkizuna ikusirik, **Ikastolen Elkargoa sortu du gure Diputazioak. Nere ustez, aspaldi eman den urratsik astingarriena hau da Nafarroan**; ez da harri zaharrak aztertzea bezala, gure nortasunaren arnas bizi zaindu eta indartzea. Hor dago bizirik herri-arima.

Ez balitz gauzak apalean egilea izen bat aipatu behar nuke nik orain. Haste hastetik lehen orri buruan zeterren M. J. Urmenetaren izena. Oraino ez du aipamen hau kentzeko biderik izango; joan zaigu; Langile jatorraren lana egin du: ixil ixila eragin eta gauzak aurrera eraman. Eta, gero, eskertu, zordun baltiz bezala!! Asmo haundi guziz jabetzen den bihotza zordun agertzen da beti lortu-takoan...

Ez dira hitz hauek despégida bat: Urmeneta gurekin izango da berriz ere P. de V. euskeraren sailan. Lehen orri buruan, edo beste lerrokada batean agertzeak ajola gutxi du. Lanak uztartzen gaitu.

Ez adiorik Migel Jabier! ikusi arte.

J. M. Satrustegi

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

EGIA GEZURREK GURUTZERA

Garizumaz.

Gezurra itzetan: gezurra musuan: Egia diruen truk. Auxe gertatu da gau batez baratz batean, norbaitek itz goxoein ta musu ezti batekin Norbait galtzen duenean.

«**Gizon bakarra erri osoaren onetan iltzea obe!**». Apeza, ta apez gisa, mintzo da: barren ustelakin ordea. Gezurra dario bere baitatik, naiz laungoikoak orain ere lerro biurrietan zuzen idatziko duen. Egia, ixilik bere bidean.

Apezburu izenaren zaintzale batek, matelezurreko bat emanaz, itz otzek, egizale aundi baten antzera, aurpegira botatzen dizkio Egia: «**Orrela erantzuten diok Apez Nausiari?**». Egi-antza, nola ez! Antza bakarrik, bai. Itz oien azalpena eskatzen duenean Egia, ta «**Gaizki mintzatu banaiz, ager zadazu zertan?**» dienean, «Buru» batengandik bertzerera aldatzen dute gezurtiek Egia, erantzune ematearen ordez.

—oOo—

«**laungoiko biziaren izenean**» garbitu nai ote dute auzia? Ala dirudi. Iainko biziaren izenean mintzo zaie Egia, eta biraularizat io dute, erio-bidean paratuz. Iainko biziaren izena ere gezurre-rako, egi-itxuran.

Neskatoak an dabilz, arat eta unat, beren lanetan, itz batzuek ingurukoekin sartuz tartean. Norbaitentzat badaukate egi kokkor bat ere, egi egiazki xorrotxa, Egiarenetatik delakoa. Baietza eman norbait orrek? Ez diet bildurrik! Uke, ta uke ta uke, leher egin arte. Egia, bere bidean doazie, norbait orri, bazter uztean, begiraldi ezti xamur bat bializ.

Musu emale gizajoa, berriz ere itxuraz egian, izatez ordea gezurrezko damuarekin; xuxeneko bidean sartu behar ta makurrakora oitzen duelakoz, diru-gosezko sukarrakin bere buru guzia nahasirik. Egia, aintzina doa, gezurrezko ontasunen dirdirekin txoratuta makurrera erori gabe.

—oOo—

«**Zer da Egia?**», galdetzen du norbaitek. Norbait au bedere Egiaeren atzetik ote dabil bada? Galdetu, bai. Erantzuna artzeko astirik, ez. Ta ezaztea, gaueko ametsaren egiarekin datorkionean, gezurren oiuen sendoak belarriak bete dizkiolako, egiarentzat lekurik ez! Egia, ixilik bere bidean: Behariko!

—oOo—

Gezurrezko musu batekin eriotzaraño bulketzen ahal da norbait sekulan? Azalezko ta itxurezko adiskidantzarekin dirua batek bereganatzea ernea izatea ez ote da? Norbaiten musu te gezurrezko itzek Egia bera ere eriotzara daramate. Len ta orain; len ta orain.

«**Gizon bakarra il; ta erri osoa salbo!**»

Aunitzen burutara datorren gogapena da naski au, berek nai duten bidetik ez datortzenetik garbitzeko ongi mundua; dator-tzen oiek Egi-bidetik baldin badatoz ere.

«**Orrela erantzuten diok Apezari?**»

Munduan ongi bizitzekotan... eman atsegini aginterieri: eman zartakoak Egia: eman lasai: ta zer? Arritu? Gurutzeratzeko dute Egia, orain bi mille urte bezal bezala gaur ere.


«**Iainko biziaren izenean**» eskatzen da maiz aski batzuen ta bertzen uestea ta iritzia. Eskatzen duenari on zaiona bakarrik izaten da Iainko biziaren izenean eman behar izaten dena ameka aldiz! Ustea ta iritzia eskatzen duenari on ez zaion erantzuna emalea, doala biraularien lezera. Ta Egia? Gurutzerata: au da bere bidea; noiznaiz.

«**Iru aldiraño**» uketu? Egia aitortzeak neke zerbaiten arrikua dakarrenean, lasaiki! Gu, aldien aldiko egi ttikiekin, bai: beti: egixkekin, egixketan: bañan EGI aundi te osoakin... zein guttitan! Gurutzerata dakar.

Bidea zuzen artzean dago dena: makur artuz, urkamendira xuxen. Bide zuzena EGI'en bakarrik daukagu. Ez gaiteren ordea «**Zer da Egia?**» galdetu ta geldu. Pilato'n geldituko ginezke orrela. Ta Pilatoren ioera ez da agitz gizezkoa agertzen EGIA'ren gurutzerako Bidean.

Garizuman.

ARITZ



EUSKAL HERRIKO LEIOA

«JAINKOAREN BILLA» LIBURUA

Bilboko «Ediciones Mensajero» etxe delakoaren «ETOR» izeneko Sail berriak Nikolas Ormaetxea «Orixe» zenaren «JAINKOAREN BILLA» liburua berriz ere argitara eman du.

Liburu honen ondoren «ETOR» delakoak beste euskal liburu batzuk argitaratuko ditu. Urrengoa «MARXEN MARXISMOA» deituko dena izango da. Bere egilea: Gotzon Garate jauna.

MANUEL LASARTE BERTSOLARIEN OMENALDIA

Manuel Lasarte napar bertsolari on ona dugu. Aurten Donostiko



«Astoria» Teatroan martxoaren emeretzigarrenean (San Jose egu-

nean alegia) Lasarteren omenaldia izango da. Euskaldun asko egun hontan bilduko dira Lasarteri biotzeko gorasarrea eman beharrez.

Manuel Lasarte Arribillaga, Leitzeko herrian sortu zuen, Franki baserrian, 1927 urteko abenduaren amaseigarrenean. Leitzetik Gipuzkoako Aiako herrira bere familiarekin bizitzera juan zuen, eta han Gipuzkoan, Aian, gero Eibarren, eta azkenean Zarautzen bizi izan da.

Aotik aorakilako bertsolaria da Lasarte, bertso paperak iñoz ez ditu izkribitu, eta Euskal Herriko euskaldun herri geienetan oso ezaguna da, batez ere, Gipuzkoako eta Naparroko herrietan.

Nik ere hemendik gure zorionik beroenak egun ona pasatzeko desiarekin batera Lasarte zintzo eta jatorrari nahi dizkiot bidaltzen.

«PROTESTANTEEN EUSKAL BIBLIA»

Cure seigarren Merindadean sortu zuen Joannes Leizarraga apezak, Nafarroako Erregina zen Albriteko Joanaren aginduz, «PROTESTANTEEN EUSKAL BIBLIA» 1571 urtean euskeraz idatzi zuen. Aurten bada laurhun urte betetzen dira gure nafar apezak Protestanteen biblia euskeratu zuela. Hau dela-ta, Bilboko semen den Xabier Kintana euskal idazle gaztea aspaldin ari da euskal liburu iakingarri hau prestatzen eta aurten lau Ebangelioak gutxienez argitaratzekotan dago. Oso interesgarri izanen da euskalduneeen eskuetan, batez ere, euskerazale artean izugarriko balioa izango duelakoz gure euskera zahararen mami eta sustraiak eza-gutzeko.

EUSKAL ESTUDIANTZAKO EHUN MILLA PEZETAKO SARIA

Bizkaiko Basauriko Aintamenduak, Bilboko Ateneoaren laguntzarekin, 100.000 pezetako Sari bat jarri du, «Euskal Estudioak» gai buruzko lanen artean onenari emateko.

Lanak euskeraz ala erderaz izan ditezke. Lanak bialtzeko epeak datorren ekainaraño (Garagarrilaraño) irauango du, Zuzenbide hauetara bidaldu: Ateneo de Bilbao. Colón de Larreategi-4-BILBAO.

BERTSOLARIEN TXAPELKETAK

Euskal Akademiaren Urtarrilaren Batzarrean Aita Zabalak esan zuen lau urte duela Bertsolarien Txapelketak egin ez direla eta aurten egin behar irakelako eskaria presentatu du.

Begi onez ikusten dut Aita Zabalaren eskari hau eta ados nago berarekin.

Uste dut 1971 urteko Euskal Herri guziko Bertsolarien Txapelketa bat egitekotan Txapelketa honi ANDRES NARBARTE izena jartzea gauza egokia izango litzakela gure goizuetako bertsolari jator zenaren oroitzapenetan.

EUSKERA ETA IRAKASGOA

Españaiko «Enseñanza Primaria» delakoaren Burua Eujenio Lopez jauna da. Jaun ha Barakaldoko «Altos Hornos»-en eskolategiak ikus-tatzen ari izana da eta herri izkuntzeen alde poliki mintzatu da. Hemen bere mintzaldiaren aipamen txiki ta iakingarri bat: «Herri izkuntza (euskeraz guretzako) gero ta gehiago erabili behar litzakela eskolatan eta hortarako irakasleak ornituta behar direla (euskeraz eskolatu, trebetu behar direla), ez badakite ikasiz, eta gero erabiliz». Itz ederrak Españaiko «Enseñanza Primaria» ren Directoreak esan zituen.

AITA VILLASANTEREN LIBURU BERRIA: «HACIA LA LENGUA LITERARIA COMUN»

Euskaltzaindiaren Burua den Arantzazuko Aita Luis Villasantek erderaz idatzitako liburuxko berri bat idatzi berri du, «HACIA LA LENGUA LITERARIA COMUN» izenburuztat duena. «Editorial Franciscana de Aranzazu» delakoak argitara eman du. Aita Villasantek liburu hontan euskera literarioaren batasuna egiteko oinarriak azaltzen ditu. Oinarri hauek Euskal Akademiak onhartu zituenak dira.

Euskal ortografia hiztegiari dagozkionak, deklinabideak, euskal aditzaren batasuna, eta euskeraren joserara argi ta garbi azertzen eta azaltzen ditu egileak.

Edozeinek eska dezake Arantzazuko Aita Frantziskotarrei-ONATE.

Ikusle

Gotzon Garate-ren liburu berria

ETOR libur-sail berriak bigarren alea argitaratu du Gotzon Garatek egina. Ezagutzen genuen jaun hori, lehen «Gomiga» izenez «Zeruko Argian» idazten bai zuen. Aspalditan ixilik zegoen.

Liburu berriak «Marxen marxismoa» du izena eta Marx komunistaren bizitza eta haren erakutsiak ematen dizkigu. Liburu atseginez irakurtzen da, euskara errezaz egina ta gauza aunitz jakinkarri ekar-tzen dituelako. Gotzon Garate-ri ta ETOR sail berriari arrakiste handia desiatzen diegu.

Rafael Petrarena



ELIZAREN ITZA

Eliza gaurko munduan

Azken urtetako gudak era guztiko kalte izugarriak egin dizkiote munduari ta ala ere munduko zenbait alderditan gudaren erasoak ez dira aitu.

Makurrago oraindik, geroan ta gero iskillu edo arma berriak asmatzen baitira, lehenagoko astokeriak motz gelditu beharrak dira gaurkoekin. Hortaz gañera, nazio arteko goraberak ta gaurko eguneko ibillera nasiak sortzen dute GUDA OTZA deritzaiona bere azpian eta zitalkeriekin. Beste alde guda egiteko era berri bat jotzen da, bildurtzeko zalaparta han hemen eratu, edo terrorismoa.

Gizadiaren jokaera negargarri hau ikusirik, Eliz Batzar Sanduak guziera gogoarazi nahi dizkiete nazio arteko legeen indarra betiko ta orokorra. Orrengatik, hoiñen aurkako erasoaldiak, jakiñen gañean, eratuak odol-ixurtze gordiñak dira, ez dezaieke iñork jarraitu hala agintzen zaiola-ta.

Era hontako ekintzak dira enda edo raza bat, edo aberri bat, edo etnia txiki bat apurtzeko asmatzen diren lege biurriak, erio-tzibide lotsagarriak bezala ukatu eta ezeztu behar dira, ausarditsu; ta txalotu ta goraiatu, holako lege basatiak ematen dituztenen aurka jasotzen diren kementsuak.

Guda lanbidean, ekiñaldi latzak zerbaite leguntzeko, nazio artean erabakitako zenbait lege hartuak badira, erituak, presoak eta abar tratatzeko erak. Bete behar dira erabaki hauek eta ez hori bakarrik, geroan da gehiagoko aurrerapenak sortu behar dituzte agintariek, gudaren amilletari galga jarri lezaietekenak. Oraindik gehiago, beren kontzientzia, edo relijioz armarik hartu nahi ez dituenak badira, honeri, beste lanbide batean, aberriari laguntzeko prest egon ezgeroz, bidezko da beste era batera serbitzua eginaraztea.

Gudak oraindik ez dira gizartetik uxatu; arriskua dagon bitartean, eta eragotzi dezaketen nazio gañeko agintaritzarik ez dagoarik, beren burua babesteko edo defenditzeko eskubidea, ezin ukatu diteke, onez-onezean konpontzeko ahaleginak egin ondoren.

Estatuek, beraz, beren herrien biziari begiratzen ahal diote, baño ez besteren erririk menperatu.



EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Otsailaren 26-an Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian Diputazioaren Jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gai nagusien berri laburra:

«Gorputz» eta «soin» hitzei buruz txosten mordoska bat irakurri zen, Irigoyen euskaltzain jaunak aurreko batzarrean erabilitako gai bera ukituz.

Ondorean Manuel Lekuona euskaltzain jaunak beste txosten bat irakurri zuen «asko» hitzaren gainean eta hitz beraren erabilkeraz.

Carlos Santamaria jaunak Donostiako Ordezkaritzak egingo duen hiztegiari berri interesgarriak eman zituen. Hiztegi hau euskeraz idaztean maizentz gertatzen diren oztopo eta akatsena izango da. Oztopo hoiak garaitzeko Ordezkaritzak bere gain hartuko trebe direnei galderak egitea, idazlerik hobereenen lekukotasunak hartzea, ta abar. Hiztegi honek sail honek izango ditu: Ortografia, Morfologia, esanahi antzekoa duten hitzen erabilerak zuzena, joserara, idurizko mintzaira. Batzarrean oro begi onez hartu du asmo hau, beronen premia eta garrantzia aitortuz.

Saibador Garmendia jaunak beste txosten bat irakurri zuen Donostiako Ordezkaritzak egiten dituen lanetaz: Saigai dauden euskal liburu guztien katalogo osoa, zortzi urte arteko eskola hiztegia, euskal izenei buruz agiriak t.a.

Era berean Pierre Lafitte euskaltzain jaunak Baionako Ordezkaritzaren berri eman zuen eta noia era berriko Euskal Gramatika bat antolatzen hasi diren.

Jose Maria Satrustegi euskaltzain jaunak, berri pozgarri bat eman zuen: ikastolak alegia bere ardurapean hartzen dituela Nafarroako Diputazioak.

Ondoren Antonio Arue euskaltzain jaunak, beste asmo baten berri eman zuen: Gipuzkoako Diputazioak, alegia, Kultura sail edo elkargo bat sortu nahi duela, Probintziako kultur altxorra zain-tzeko eta hontan euskerari toki berezia emango ziola. Hain zuzen horregatik Euskaltzainburua Elkargo honen batzarkide izango da.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ordeak jakitera eman du noia mugaz beste aldeko elkargoek, Euskaltzaindiaren Baionako Ordezkaritzara barne delarik, dei bat egin dien herri bozetako kontseilarigaiet, euskera eta euskal kultur arazoak haintzat har dezaten.

Bertsolari txapelketen araudia egiteko izendatu dira, Aita Zabal eta Juan Mari Lekuona jaunekin batera, honako jaun hauek: izeta, Itzaina, Irigoien, Arue eta Bordari.

Euskaltzainburuok Elkargoko lagun batzuen hilerria jakinarazi zuen azkenik: Diez de Tuesta, Luis Jauregui (Jautarkoi) eta Antoinette Lakarra.

(EUSKALTZAINDIKO PRENSA BULEGOAREN AGIRIA).



A nuestros lectores

En febrero pasado se cumplieron cinco años de la aparición del primer número de este Suplemento en euskera de la Revista de la Institución Príncipe de Viana.

Desde entonces el ritmo de diez números anuales, abarcando cada número en verano y navidades los meses de julio y agosto, y de noviembre y diciembre respectivamente, se ha mantenido sin retrasos ni interrupciones.

El fin de este Suplemento en vascuence es que nuestro euskera llegue a todos los hogares de la Navarra de habla vasca, con objeto de que el idioma, aparte de ser hablado, sea también escrito y nuestros euskaldunak se familiaricen con la lectura de su lengua vernácula, atendiendo de esta forma al dominio completo del idioma: Habla, escritura y lectura.

Por estas razones titulamos esta publicación: «Suplemento mensual de la Revista destinado al fomento del vascuence».

Deseamos por tanto que «Príncipe de Viana» en euskera llegue a la totalidad de las familias vascofonas de Navarra, directamente, por Correo. Tenemos miles de direcciones a las que se les envía por mediación del cartero, pero a otros muchos por no saber sus direcciones, se les envía por medio del Sr. Párroco a quien se le manda un paquete de revistas para su distribución. Este último método de distribución desearíamos dejar, puesto que supone una mo-

lestia para nuestros sacerdotes a quienes agradecemos su colaboración desinteresada.

Para esto nada mejor que todos los que deseen recibir «Príncipe de Viana», Suplemento en vascuence, envíen su dirección: Nombre, apellidos, y nombre de la casa o caserío y el del pueblo a estas señas:

Vocal Delegado de la Revista Príncipe de Viana, Suplemento en Vascuence. San Antón, 43-1.º Pamplona.

De esta forma todos los que soliciten de Navarra recibirán, si hasta ahora no recibían, esta revista directamente en su casa por Correo.

—oOo—

También desearíamos que todos nuestros lectores, colaborasen enviando artículos en euskera, igual escritos a mano como a máquina, y lo mismo sean en prosa como en verso.

Con voluntad, PONIENDOSE a escribir en vasco, escribirán estupendamente y las faltas de ortografía que puedan tener serán corregidas para su publicación y servirán de lección práctica para el nuevo colaborador.

El envío de vuestros artículos también a la misma dirección.

Esperamos pues vuestros domicilios y vuestros artículos de colaboración. ESKER MILLA AURRETIK.



"BILDOTX"

"EPAILLA"

Aur pollit n̄imiño bat zan etxe batean: iostetan aritzen zan etxe-gorapean: «Aita-Ama» zazkien utsik solasean: «Bildotx» itza ere bai bildotxa ikustean.

Urrundik ere noiznai, uda inguruan, errira datorzela arrotzak multxuan, nork asma zer dabilkin bakoitzak buruan? Arrotz batek aurtxoa darama zakuan.

Urrun eramaten du lapurrak aur ura. «iñork arki ez beza» ohoinak ardura. «nekez itzuliko duk sortuko lekura: nekez ere etorriko erria eskura!»

Arroztu beharko du aur zorigabeak: ahanzi behar ditu Ait-Ama maiteak: aldebat utzi ere bere aurrideak: ez ditu billatzen al lengo aisikideak.

Leku berrian ditu ardiak ikusten: besoa luzaturik ditu erakusten: ta an bildotxa asi denean autesten, «bildotx, bildotx» oiuka asi da abesten.

Itz au bakarrik dio aur bildotxazaleak: bere izena dala uste ebasleak: «Bildotx» deiteko dute ango biztanleak: paperetan au bera diote Legeak.

Bigarren izendako «Aita» iarri zaio: irugarrentzat «Ama» beharko balio: «O, Bildotx Aita Ama» otsegiten dio erriak, naiz ez iakin non ote dan iaio.

Neketsua egitan bere aurtzaroa; ez du, bada, berdiña lapurrak aroa; noizbait noizbait zentzuko, geienez eroa: «Bildotx» eztiak noiznai begitan malkoa.

Bederatzi urteak bete ditunean, piztu da zoriona bere biotzean: senar-emazte batzuk diruzko trukean artzen dute berentzat maitetasunean.

Senar-emazte on ok, umerik gabeak, ilundurik zaduzkan biotz-naigabeak. Aurraz txoratu dira. Guratso-ordeak lirakela entzun du aur-ebastaleak.

Diruaren ordean aurra ematen du, bai ta paperak ere Legean zuzendu: «Senar-emazte okin aurak behar mendu! Senar-emazte «Bildotx» bezate mantendu!»

Ikasi behar duna erakutsiz doaz: oroitzen dira gaurko eta biarkoaz: ez da nexka illuna adimen-gogoaz: maitagarri da bere ain biotz gozoaz.

Emezortzi urtetan, neskatx maitagarri: mutil franko badauzka bereaz egarri: senarra autatzeak iartzen du ain larri!... nor bein eta betiko biotzean iarri?

Autatu du mutilla, zintzo, langilea, argi, biotz oneko; da sendagillea: orrela biok dute on-egin-bidea autatu, laguntzeko ango iende xea.

Ezkondu dira biok apiril batean: ezti-ilargiz dabiltz mundu zabalean: sorterriratzen ere, ain ustegabea, emakume gaixoa Pazkoegunean.

Sorterriratutzean, ikusten dute an artalde bat ederra larrain zabalean: artzaña antxe dabil ardien artean, bildotxak arditatik berezi naiean.

Artzain aren alaba, aur pollit ttipia, kanta-kanta ari da leioan iarria; «bildotx, bildotx ta bildotx» (arin arpegia) «Aita, ama, or bildotx» da bere eresia.

Senar-emazteak au entzun dutenean, arri-biurto dira larrain bazterrean. «Aurtxo ttipiak nola iakin dezazkean nere iru izenak, danak bat batean?»

Latinez zerbaiz zerbaiz badaki senarrak: elizara bulka du iakin-nai beharrak: emazteak bai ere ematen indarrak: «Zer esan nai ote du leio dehadarrak?»

Elizaren ondoan gorape ttipia: onek iriki dio «Bildotx'i» begia: «Au nun aurtzaroako iosteta-tokia: etxe unek behar du nere sort-etxia!»

Apezarengandikan iakin dute dana: «Bildotx, Aita, Ama» itza! euskal itza; dana! Gorape ontan iosta izandu zerana? Zu ote zaitugu, ba, ostu ta eramana?

Ni apez etortzeko egun egunetan, ortxe ari omen zan aurtxo bat iostetan: urbiltzen zaio norbait gezur-solasetan; artu ta or darama aurtxoa besotan!

Naigabeakin gaitza sartu zan etxean: danak erori ziran eritasunean: ban-banaka il ere launaren pakean: aitetak iñortxo gaur ez gutartean!

Negarrez entzun dute gertakizun ura: «Bildotx'i» datozkio gauz franko burura: bañan ixilik doaz ezkondu lekura: antxen daukate eta lanerako gura.

Euskera-gramatika artu du senarrak: erriko lur saindutik «Bildotx» erriarrak: euskera ikasteko biok ain azkarrak, ortan iarri dituzte biotz ta indarrak.

Zillar-etzai eguna datorkienean aiez pasa nai dute euskaldun errian; denekin mintzatuaz izkera maitean; «Bildotxa'aren guratso-aurriden antzean.

IASAN

«ESKUALDUN BATEN KALIFORNIA - TIK»

AIREA: Sujet eder bat deklaritzen dut, gaztek etsenplu hartzeko.

Orai berriki irakurtu dut «Herria» Eskualdun kazetan Bi eskualdun diskusioez elgarri urrun danikan Gure mintzaira sanjaten ari dela leheno danikan Izkiriatzen ere dugula, hitz zonbait berriturikan.

Estimatzen dut bi jaun horien oraiko diskusioia Arrazoin horren jujatzeko ez naiz aski kapabilia Bainen horgatik eman nahi dut neure opinioia Hobe dugula gizon jakintsun horier galdegitia.

Konpreni dezaun nonbait badela Eskuaran falta haundia Herri batetik eta bertera badugu diferentzia Ainitz aldiz gertatzen dena, nekez da konprenitza Abantail laike gisa batera, Eskuara oro ezartzia.

Lan hori utzi behar ginuke gizon inparzialetan Denborarrikan galdu gabe ar diten lan horietan Erakuspenak zabal ditzaten eskualdun guzietan Ontsa finkatu arteraino gure buruko muinetan.

Eskualdunak mintzo gaituzu urrun Eskual herrietik Guk ere odol bera baitugu, ait-amen ganik sortzetik Nahiz beharrak manaturik urrundak gira hortik Odol hau bera gure zainetan joanen gira mundutik.

Eskualdunak oro batian segi dezagun aurrera Behar bezala arrañatzeko desberdin dugun mintzaira Liburu eta erakuspenak zabal ditzagun hortara

Norbeit bederen entsega bedi, berandu gabe sobera.

Jendeak ez du munduan behar beretzat bizi bakarrik Nahi badugu bertzetarrikan izan nehon estimurik Gure mintzaira zuzen ezarri ez laike ondun dolurik Konprenitzeko batak bertzia abantail luke segurik.

Lehenago ere ezarria dut, bertze bertsu batzuetan Eskual herriak hurbil bainan, diferente mintzaietan Serioski hor lotzen bagira gure hitz eta obretan Ez da dudarik eman ginio gure mintzaira odretan.

Odre onetan emanez geroz gure mintzaira Eskuara Emeki emeki junta gindaizke, Eskualdunak batetara Ideia hori gogoan hartuz entsega gaiten hortara Orok batian altxa dezagun gora Eskualdun bandera.

Ofentsatuek barka dezazue, eta ez ahalaz gaitzi Ez bainiz segur xede hortako bertsu hon emaiten hasi Ainitzak hemen hutsian girela behar ginuke sinetsi Gure mintzaira berdin ta zuzen, behar laite erakutsi.

Adios beraz adixkidiak nahi ziuztet despeditu Batto Buffalon, bertzia Baionan, urrun gatikan gertatu Diskusioia segi dezazien, ez dut nahi debekatu Bainen Eskuara bat egitera, gaiten oro entsegatu.

Juan C. Arrosagaray. POMONA, CALIF.

GOBIERNO DE NAVARRA

Irugarrena urteko illautia: / ari da eguna luzatzen. Arratsa berriz, gero ta geigo / laburtu eta moztutzen. Otsaillarekin antza txiki bat / askotan duzu izaten. Zuk ere otzak zure gañian / dakizu noiz nai ekartzen.

Orañ Epaila aldatua dugu / ta ez du lengo antzarrikan. Bazan ill ontan soñu bar barra, / bazan tximixt trumoikan. Bazan aizia, kazkarabarra / bazterrek zuriturikan. San Jose lore izenekuak / jasan itsaso aldetikan.

Bota aldia egiñ ondoren, / eguzki pixka neurrikiñ. Luzatu gabe, berriz trumoia / orru izugarrikiñ. Tximixta, aizia, kazkarabarra, / lau gauz abek elkarrekin izaten zuten sasoi onetan / zer egiña indarrakiñ.

Epaila illeko eguzkiak buru / gañian norbait jo ezkeru, buruko miña egingo dio / ta iges berari aburo. Orrela guri esan digute. / Ez negarrik egiñ gero. Ez egon, bada, bere azpian. / Etzaitz egon luzaro.

Ezautu izan dut Epaila ill auxe / noizbait sargoi eta bero. On da berua bere neurrian. / Geiegia kalterako. Neurritz kanpora gauz onak ere / ez ditugu egokiago. Eska deiogun Jaungoikuari / komeni dana egunero.

Epaila ill ontan aditzen'bauzu / bar bar trumoia'en orrua jakiñ ezazu izango'uzula / kosetxa on ta segurua. Ez duzu izango gari txarrarik: / Beteko duzu zakua. Zure Jaunagan itxaropena / izango'uzu onespenduia.


Epaila ill onek berekiñ dula / diote gizon jakintsuak, urte onaren giltza-sarralla / idekitzeko atiak. Bedeinkatzeko ta ugaritzeko / itsaso ta mastegiak. Loria onoren potokatzeko / sagar, marrubi, udariak.

San Josek daukan bedetzi urrenian / atozte, arrantzaliak. Ama Nekalduen jai aurretikan / atozte, nekazariak. Zeru laguntzak gogoz eskatu / ta bildu emaitz ugariak. Antxo bizia, gizen gizenez, bete iitzatzute sariak.

Epail illaren ogei ta bostian / (ala dioten bezela) kantatze omen du lenengo aldiak / kukuak bere erara. Juaten omen da orretarako / Erroma zubi erdira, eta aindikan etortzen zaigu / gure mendi, basotara.

Aize diabru ebakitzaillia / ez bada sortzen ill ontan, millaka loriak egiñgo'ituzte / sorgiñkerik bazterretan. San Josek eta Ama Birgiñak / entzun ezkeru oitizetan, izango dira aberastasunak / itsaso eta lurretan.

Joaquin Aldave



AITA

Monjatxo batek, bere aita il zitzaionean egindako bertso batzuek jar-tzera goaz. «Oi, Pello Pello» bezala abestu ditezke.

— 1 —

O, aita, aita! Zure seme danak gaur emen datokizu, esker ugariak eman naiean, gure alde asko zuk egin duzu.

— 2 —

O, aita, aita! Zu zeruan zaude aspertu gabe beñere, guretzat ogia irabaztearren, jarraiko zenduke oraintxe ere.

— 3 —

O, aita, aita! Zu zeruan zaudo eta gu jun naiean; lekutxo eder bat billatu zaiguzu, beti bizitzeko zure ondoan.

— 4 —

O, aita, aita! Zer dio Jainkoak, itz-egiten al dezuz? Bera ezagutzen lagundu zaiguzu, olaxe guztiok dezagun maitatu.

— 5 —

O, aita, aita! Amaren izenean dizut orain itz-egiten, zu gabe gelditu da eta pena orrek ez dio arri alde egiten.

— 6 —

O, aita, aita! Ala ta guztiz ere denok alai bizi gera, igaroko dira urte batzuk eta berriro alkarrekin batuko gera.

— 7 —

O, aita, aita! Azken eskaria: zu gure bila etorri, alegin guztia egingo degu ta eskuak betetzen Alaxe bedi.

— 8 —

O, aita, aita! Izketalditxo au izan da oso labur, beste egun batean jarraituko degu, orain esateizut: Aitatxo agur.

(Saldias herriko «Artzai-Deia»tik hartua)

IKASI, MIKASI...

AMETSETAN, SAN PEDRO'GANA...

Nere azkeneko iru idazkaitxo: «Komunismoa ez, baño...», «Zoriona, diruan? eta «Aberatsa, internuko lagatza», gogor xamarrik iruditu zaizkio «PRINCIPE DE VIANA»n leizale bateri. «ageri da —gaztigatu dit—, beorre aberatsan kontra dagoala. Porian artian ere ez aida gaitorik, zaxarrak, biotzagabekorik? Ez luke opekio eihen, Zazpigarren Aginduak zer diagun, eta zeinbat aldera iaun projimoari kalte egin dezakiegun aotieraz?...»

Seguro aski ez da oartu nik jarri nituan arrazoieta. Nik nion, eta diot:

«Aberastasanak, berez onak arren, errax kaitebide biurtzen dira. Gure gorputzek, zeinbat eta geiago ematen zaion ainte ta geiago eskatzen duan ezker, aberatsa, aiarri guztiak idukita dirua bidez, aixe zaxarrak da eta lagun projimoantza biotz gogorrekoa egiten; dena beretzat nai bai du...»

Jesukristo, ni baño gogorrago mintzo da aberatsen kontra:

«AI ZUEK, ORAIN ASERIK ZAUDETENAK, GOSETUKO BALZERATE». (Luk. VI, 26).

Robren alde jarri bai nitzan, ara emen aipatutako arrazoiak: —«Pobrea, zeruko lorea, esaten da, ez pobrea izanda bakarrik zeruratu daitezake, baizik lanari eta onizagueri lotuta, alperkerin bizi direnen gaiztatuak ez duela». Pobren alde, ni baño bigunago mintzo da Jesukristo:

«BAI DOATSU BEREN GOGOZ BEARTSU DIRANAK, ZERUKO-ERRIA BEHEA BAITOTE» (Mat. V, 3).

Aia ere, ikusten den arrazoi pixke bat ba-duela zeaztasun geixeko eskatzeko. Bano, noia bino idazkaitxo batean lapurreta kase guztiak, eta zeinbat aldera lagun projimoari kalte egin dezakiegun?

Pentsamentu oietan nengoala, eta nere «IKASI-MIKASI»rako zerbaiz prestatzeko asmoan, bari oeratu nizan. Ez det batere ioik egin. Gabe guztia ametsetan igaro det. Aia ere, pozik jeiki naiz gaur goizian, te-bisioan baño antzerki irakaskorra begien aurrean izandu det eta...

Amets izandu det, ilda bereala, San Pedro ngana nengoala. Nere aurrean zeuden ogeien bat gizon, epantz —sententzian— esperoan.

San Pedro, antzoko txikiak sudurren puntan zituela, oso serio zegoan, liburu aundi batetik bakotzari bizitza guztian egindakoa gogoratzen.

Ara, emen, banaka batzuei esan diona:

—«M. A. (emen bere izena eta apellidoa): Zu, bizitza guztian, den-dari izandu zera. Alde batek, meseue aundia egin diozu guztiari, zure denoan arkitzen bai zuten bear zuten guztia, iruhera eoa Donostura juan gabe. Bano zer prezioan! Arkatz zorrotza izandu duzu zuk txar-teian numeroak aiatzeko. 5 pezia jarten bazuan, aurretik 1 jartzen zinion, eta oia saitzen zinun 15 peztan. 3 peztan erositako udariak, 13 peztan saitzen zinuzen. Uri lapurreta da! Pixkebat garestigo saizu aitateke, baño ainbeste!... Ola egin dituzu zuk bi etxe eder...»

—«N. G.: Zu nekazari eta fabrikako langillea izandu zera. Etxeko lanetan bizkorra, eta fabrikari alperre. Ganera, igandez eizean zehihera besoa autsita, astelenian «apropos» erori zinan fabrikari, seguroan bizkarretik «baja» artzeko. Beste ainbeste egiten zinun urtero, patatak eraiteko denboran. Ia, saskithoan ateratzen ziñuna...?»

—«J. E.: Zu neska ere izandu zera. Orain berrogei urte izandu balitz, txuxentxuxen zerura baldiko zenduket. Orduan neskameak lan egin bear zuten gaur egun, astegun eta igandetat, «seguro» gabe, ta illebeteguz-tian Sei duroan, eta askotan ezin kobratuz! Orain, illebeteguz-tian LAU mila pezia, aldiz-atekoak, propinak eta astean egin bat libre... Ez nago orren kontra. Baño, nagusia baldarra zelako eta nonai dirua u-ten zuelako, noizpin bein amarduroko bat, eoa ogeiduroko bat ebatsi diozu. Atsalde askotan, nagusiak urruti zeudela, merienda ederrak egin dituzu zure lagunekin... The, the, the...!»

—«Z. L.: Zu, ez balioz, baizik rekomendazioz, sartu ziñen bear-bea-renetako Ofizian. Denbo geienin, izparringiak leitzen edo «kintelak» betetzen egoten ziñen. Leiotillan, «Fox-terrier» bat bezala agertzen ziñen. «Istanzia Madrilla bidali gendun, eta ez dakigu noiz erantzungo duten...». «Etor zaite emendik zortzi egunera...». «Oraindik ez da etorri...». Baño eskupekoka artu ezker bereala zegoen eskatzen zutena. Ez da ala?»

—«A. M.: Zu medikua, eta mediku famatua izandu zera. Nere apun-tetan ez det keja aundirik zure kontra. Alegiñak egin dituzu gaixoak zaitzeko. Tratatu berdiña ziñun, bereala ordaintzen zutenentzat eta «se-guro»-koentzat. Bear den bezala! Baño, zure baliotasunarengatik, pixka bat arrotu ziñen. Denak zuregana etorri nai zutelako, gero ta sari aundiago eskatzen ziñun... Gañera, operazioan bat, bada-epada!, iya al-perrik izango zela jakieñ gañean eta berak enpeñatu zirelako, egin duzu. Obe egieñ ziñun, itxaropenik etzela esan ba-ziñiezu...»

—«B. A.: Zu tabernari izandu zera. Nork eman zizun zuri bataiatzeko almena?...»

Momentu ontan, jeikitze txilintxa adituta, esnatu naiz. Len esan detan bezala, oso pozik, eta penaz!, zergatik, jakin naian nengoan tratanteai, abogadoai, juezai, txoferrai, soldaduai, arkitetoai, kontratis-tai, arakiñei eta arrainketariak esango zieten...»

Nere ondoan zegoen apez bat. Orrek, ere, bildur pixka bat izan bear zuan, Aitagurea, Aitagurean atzetik errezatzen ari bai zen. Seguro aski, erresponson bat, artuta errezatugabe ote zeukan... Gizagajoa, etzen oartzen, eriotza ondoan ez dela ordaintzerik purgatorioan edo infernuan ez bada...»

Nik, ere, biotzan pilpira zerbait banuen, ez iñori lauho baten lapur-reta egin niolako, baizik... Badakizute, askotan, bateri laguntzeagatik, rekomendazioz edo, beste bateri kalte egiten zaiola. «Orrek, ongi izo-ratu nindun neri —aditzen da bein baño egiagotan— nik eskatuta nuen lekuan ezertarako gauz ez den bat sartuz...»

Zazpigarren Aginduak, ez ditu debeketzen bakarrik diru edo gauzen lapurretak eta sal-eroslean egiten diran tranpak, baita ere nolanaiko kalteak.

Eskritura Santuak, argi eta garbi, dlagu bi sententzi auetan:

«BESTIEK ZURI EGITEA NAI ETZIÑUKENA, EZ IÑORI BEIN ERE EGIN». (Tob. IV, 16).

«EGIEZUTE GIZONAI, AIEK ZURI EGITEA NAI ZIÑUKETENA». (Luk. VI, 31).

1970 - EAN EUSKERAZ ARGITARATU DIREN LIBURUAK

Urte barnean argitaratu diren euskerazko liburu berri eman nahi genduke. Ba dakigu huts egite batzuen arriskua dugula, baina hala ere zabalkundetarako laguntza danez gero, merezi duela iduritzen zaigu.

Igazkoen berri eman genduen Egan aldizkarian (1-3 z., 1970, 133/136 orrialdeetan). Han emandako 47 liburueri (1969-an argitaratuak) beste bi gutxienez gehitu beharrean gaude, ordukotzat geroztik argitaratu zirelako: Baionako Imprimerie des Cordeliers-ek argitaratu zuen *Obrak mintzo*, J. B. Etcheberry-rena eta Timun Mas, S.A.-ak argitaratu zuen *Errialde gut-tien historia*, S. Werner Watson-ena J. Goikoetxeak euskeratua.

Ondorengo zerrenda honetan, euskaldun irakur-

leentzako argitaratu diren liburuak bakarrik aipatzen ditugu.

Lerro hauetatik, irakurle, konturatu zezake euskerazko argitalpenak goraka ari direla, goraka eta hobetuaz, batez ere gaurkotuaz. Argitalpenak, batzaz beste, 800 aletik 1.500-era izaten dira, inoiz askozaz gehiago, baina urrengo askoz guttiago ere bai.

Falta direnen berri ematea eskertuko genuke. Baina, urrengo hutsik izan ez dedin, eskari hau egiten diegu argitaratzaile eta egileeri, beren liburuetarik ale bana bialtzeko Euskaltzaindiari (Ribera, 6. Bilbao-5) bere liburutegirako; liburua ezagutarazten lagunduko dugu, eta gure liburutegia guzian eskal liburutegia denez (Euskaltzaindiarena) aberastuko du-zute.

1970. EUSKERAZKO LIBURUAK

Afrikar iraultzaren alde, Frantz Fanon (Arantza Urretavizcaya eta Ibon Sarasolak euskeratua). Lur Argitaldaria. Donostia.

Alkain aitasemeak, Iñaki Alkain-Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.

Ardo ta ogi Martxelín, Jose Maria Sanchez-Silva (J.M. Satrustegik euskeratua). Gomez Argitaldaria. Iruña.

Argi bat iluntasunean, Xabier Gereño. Lur Editoriala. Donostia.

Atano ta Estrada bertsolariak, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Atheka gaitzeko oihartzunak (erdez-razko itzulpenekin), J.B. Daskonagerre. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia.

Azkoitia'ko zenbait bertsolari, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Baserriko irabazbideak, Zabalegi Nekazari-eskola. Donostiako Aurrezki Kutxak argitaratua. Donostia.

antzerki), Agustin Zubikarai. Irakur sail. Donostia.

Bizkaiko dantzak (Euskera-erdera), Jose Luis Etxebarriak Sabin Larrea-ren laguntzarekin. La Editorial Vizcaina. Bilbao.

Bizkaiko euskal idazleak, Mikel Zarate. Bilbao.

Egastien mundua, J. Dorst (J.M. Aranaldek euskeratua). «Margo-ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S.A. Barcelona.

Eguberri abestiak (bilduma). Edili. Donostia.

Eguberri kantak (bilduma). «Jaunen deia. Lazkano.


Eskual alorretik (bilduma). «Ikas» Baiona.

Espani'ko olerkariak euskeraz (II eta III aleak), Etxebarria'tar Juan Anjel-ek euskeratuak. Bilbao.

Estelas funerarias del Pais Vasco (Erdera-euskera), Jose Miguel de Barandiaran. Txertoa. Donostia.

Euskal esku-langintza (I eta II tomoak, euskeraz eta erderaz), Garmendia ta Larrañaga'tar Jon. Editorial Auñamendi. Donostia.

Euskal kantak (bilduma), argitaratzailearen izenik gabe. 1970-eko Maiatza.



H gabe-ko umoria, Iñaki Linazasoro. «Kuliska Sorta». Itxaropena. Zarautz.

Mendebaleko ekonomiaren historia (Merkantilismotik 1914-era arte), R. Saizarbitoria, I. Sarasola eta A. Urretavizcaya. Lur. Donostia.

Meza barria, Jose Domingo Ugarte-txea. Markiñako Karmeldarrak.

Noelak eta berze kanta espiritual berriak, Joannes Etcheberri. S.G.E.P., S.A. Donostia.

Peru Abarka (Euskeraz eta erderazko itzulpenez). Editorial «La Gran Enciclopedia Vasca». Bilbao.

Pierre Topet-Etxahun (Barkoxe kolbriaren bizitzea laburki), P. Lafitte. Editions «Herria». Baiona.

Salbator Mitxelena (bilduma), San Martin, Azurmendi, Txillardegui, Villasante, Errealday, Etxaniz, Agirretxe, Lekuona, Schwob. «Jakin sorta». Arantzazu-Oñati.

Soziologiaren hastapenak, Andoni Sagarna. Lur. Donostia.


Sustrai bila, Larresoro. Irakur sail. Donostia.

Xomorren mundua, F. Lacroix (M. Iturbek euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S.A. Barcelona.



Zubeltzu ta Saikola bertsolariak, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Zubeltzu ta Saikola bertsolariak, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.



Batasunaren kutxa, Euskal Idazleen Elkarteak L. Mitxelena-ren agintaritzapean hartutako erabakien gainean G. Arestik eta X. Kintanak moldatutako liburua. Lur Editoriala. Donostia.

Bertrand Russellen azken iritziak, Eiharalarrek euskeraz emana. Irakur sail. Donostia.

Biblia-ikasketa. Catequesis biblica (Euskera-erdera), Anastasio Albu-su eta Donato Arrinda. Gasteiz.

Bidasoa aldeko bost bertsolari, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.


Bidean gora (olerkiak), Munitegi'tar Sabin. Bilbao.

Biotz begietan, X. Lizardi. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

«BIZI GARRANTZA»

«MENDU ZAHARRAK»

augustin zubikarai



Bizi garrantza - Mendu zaharrak (bi



Euskal protestantismoa zer zen, Joanes Leizarraga. Lur. Donostia.

Giza soina, Goikoetxea'tar Iñaki. Euskerazaleak. Bilbao.

Goierriko lorak, Inozentzio Olea. Auspoa. Tolosa.

Gonzalve edo Ostatu betea, Elemir Bourges-P. Lafitte. Collection «Gure Herria». Baiona.

Haur besoetakoak, Jon Mirande. Lur. Donostia.

Hunik arrats artean, Anjel Lertxundi. Lur. Donostia.

Ibar ixilean, Antonio Valverde «Ayalde». S.G.E.P., S.A., Donostia.

Ibiltze azkarraren mundua, C. Dollfus (Jose Luis Ansorenak euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S.A. Barcelona.

Itxura-aldaketa, Franz Kafka (Xabier Kintanak euskeratua, Arantza Urretavizcaya-ren hitzaurreaz). Lur. Donostia.

Izartegia, R. Guillot (L. Dorronsorok euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S.A. Barcelona.

Literatura eta kritika, Patri Urkizu. Lur. Donostia.

Liturji goratzarreak, II, Etxebarria'tar Juan Anjel-ek lateratik euskeratua. Bilbao.

Loiolako Iñigo (antzerkia), Arrizabalaga'tar K.M. Zarautz.

ERRIZ-ERRI

ELIZONDO



YAUN ERRETORA HIL ZAIKU

Otsaillaren seigarren eguneko goizeko bederatziatan, Elizondoko elizako ezkil-dorreko hil-ekzilek adierazi zaukuten gure erretore Don Franzisko maitearen heriotza.

Aspaldi hontan eritasun tzar batek menderaturik zauken eta senda-biderik etzauken gaitz horren neke ta oñazeak yasanez, gure erretorearen bizia itzali da apez saildu baten antzera Yaunaren besoetan azken arnasa emanik. Go-yan Bego.

Gaztea oraindik 54 urte zituela joan zaiku gure erretorea. Gu bezala Elizondoko sortua, berehunten

azia eta bai elkarrekin eskolara ibiliak ere.

Iruñeko Seminarioan egin zituen apez ikastaroak eta 1943 garrenko urtean apez zuen Elizondoko elizan bere lendariziko meza emanik. Bizpau urteen buruan Elizondoko parrokiko organista izendatu zuten eta orai bortz urte, hemengo erretore. Erran daiteke bere bizi guziaz Elizondoko parrokian igaro zuela.

Herriko seme on batek bezala maite zituen hemengo oitura onak eta hauek irauazteko egin-ahal guziaz agertzen zituen. Denek maite ginuen, gure erretorea denendako ona baizen, etzuen beñere berexkuntzik egiten, beretako denak berdinak eta denak Yaunkoaren umiak ginen. Yaunak eman dezaioa betiko atsedena.

Ehortzketak joan den igande Otsaillaren 7 an ospatu ziren, elizkizunetara ikaragarriko yendeketa bildu zelarik. Herri osoa han zen eta bai Baztango herrietakoak, Ultzama eta aunitz lekuetakoak ere. Eliza beñere ez bezala bete bete eginda eta yendea kanporatua aterara barnean tokirik etzelakotz.

Meza hungikarria, aldarean berrogei apez denen buru Iruñeko Artxapezpiku Tabera Yaun Agurgarria, bere ondoan Donostiako Apezpiku Argaya Yaun Agurgarria eta erretore zenaren anaia Mikel Yaun apeza zaudela.

Elizkizun ederra, kantu eta otoitz kartsuak yendearen aldetik eta pre-dida-biderik etzauken gaitz horren neke ta oñazeak yasanez, gure erretorearen bizia itzali da apez saildu baten antzera Yaunaren besoetan azken arnasa emanik. Go-yan Bego.

Gure doluzko agurrak familiari eta bereziki Don Franzisko zenaren anaieri.

M. Izeta

TAFALLA

GARMENDIA ETA BERASATEGI'TAR INAZIO ITXAS KAPITAN OSPETSU ETA ESKRITORE ARGIA

Egi esateko, Tafalla ziadate txiki bat besterik ez da. Amar mille biztanle eskax... Bano, emengo jendea oso bizkorra da ta, aparterik, Paris edo olakoen bat dela dirudi. Tafallan soñua nondinatik aditzen da.

Abeslari artian, or dituzte Juan Nafarro, Flamarike Aizpak, «Kanzion de la Jota». «Koral Tafallesa». Eskritoren artian: Kabodevilla, Astrain, Berruezo. Obispotaz mintzo bazerate, gñok ez du aditu D. Jabier Oses, Ueskako gotzaien izena? Apez, Fraile ta monjataz, ez oago zer esan bearrik...

Arrigarrizkoena da, itxas gizon famatuaren artean ere, Tafallan azitako bat arkitzea. Ala izan arren, egi biribila duzute GARMENDIA TAR INAZIO'n.

Onetaz mintzo egiteko, ari askoz atzetik artzekoan beartua nago.

1934ko urtean, ni meza eman berria nitela, bidali ninduten Tafallara. Garai artan, etzen emen Euskal ikastolik eta, euskalzaile asko izan arren, oso gutxi ziren euskeraz zakitenak: Arraras, Ezpanda (orain iruñen Diputatodako presentatzen dena...), Martinena anaia (Eibarren egondak), Garmendia («Zeleta») eta beste banakaon bat. Azken aipatu duten onen izena ongi barratua zegoen Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian, bere idazkai jakintsuengatik. Garmendia'tar Juan eta Berasategi'tar Lina, beren iru seme-alaba: Inaki, Begoña eta Ibon'ekin, bizi ziran Rekoletas izena duan kalean.

Famili kristaua, mundun bazen, euskaldun onak bezala. Aita, bere elerti-arauzko gañen, Ajente Komertzial bai zen, munduz mundu ibiltzen zen, representazio lanetan. Ama, erle fine bezala, etxian edo elizan jsei terditako mezan beñ ere faltatu gabe...! Bi mutikoak, Eskolapiotan eta neskatoa, Monjatan. 1937'ko urtean izango zen, nere adiskide aundiak Bilbora juan zirela. Gero gaztigatu zidaten, Donostira jo zutela, an uritalduteko.

Noizpin bein, sumatzen bazuten urbil nabillela, gonbidatzen zidaten bazkaltzera. Kondizio bat paatzen nien: «paella» bat eta edozein gauz atzetik bakarrik jartzeko... Baño, badakizute, euskaldunak —eta, batez ere, gipuzkoarrak—, umore onekoak izan arren, bazkaritan ez dirala ibiltzen txantxetan. Esan dezatela Doña Lina, bere denbo onetan, ezaun zutenak.

Ordutik, urtiak joanda, urtiak etorri dira. Inaki, seme zarrena, Deustoko «ESCUELA NAUTICA» ikastolan estudioak eginda, «CALVO SOTELO» petroleroan, Oficial-Agregado izendatuta, asi zituen itxaso barneko mille prozesio. Gizon txintxo ta baliokoa, audo igo zen goragoko malleaño. Orain, DON IGNACIO DE GARMENDIA ETA BERASATEGUI, Pasai Portuko PRACTICO duzute...

Banekin, euskeraz bazekiela (bere etxean ez baizen beste aldera egiten) baño ez nuan uste bere aitararen etorrera eta erraxtasuna zuenik.

¿Ezetzeg? Ongi erakutsi digu BAIETZ. Frantzes, ingles, italiano, portuges eta erderazko liburutetan, itxasoko gauzetaz ikasi duan guztia, euskeraz jarri digu bere «IRUDIDUN ITXAS-IZTEGIA» = DICCIONARIO MARITIMO ILUSTRADO an itxas ontzien eta bere zatien izenak eta orrietan zabaldua agiri diran marrazkiak. ¡Lan ikaragarria, ON IGNACIO DE GARMENDIA'k egin duana! Berak, eta lagundu diotenak (seguro aski, bere aita, ON JUAN GARMENDIA, izango da lendariziko maillan...), jakingo du te zeinbat kosta den liburu au, EUSKAL ERRIKO itxaso-ertzeko errietan barna, gure marinel zaarrei galdetuz.

Liburu konparagabeko au nai duenak, eskatu beza Liburutegi nagusietan, edo bere egilleari: DON IGNACIO DE GARMENDIA Y BERASATEGUI, CAPITAN-PRACTICO DEL PUERTO DE PASAJES. Iparragirre, 11-5.º San Sebastian.

A. Astiz Arregi

Se autoriza la copia para la investigación.

© GOBIERNO DE NAVARRA



ORBAIZKO ANDRA-MARIA

ORBAIZ (Longida)

«Txintxurrimear», mendi tar-te sarreran, Osa errixka ta mendipean, Urrobi ibaiaren gainean, Artzibarko mugan dago errixka eder au. Benetan garai zarrekoa da. Antzinako kutxua dute Elizak, gaztelu zaarrak eta etxeak. Errege bidetik asita elizaraino dijoan arrizko bide luze baten ondoan daude etxe da-

nak. Soro baztarretan, mendi magalean maastiak arrot utzita agertzen dira.

Udaran izandu giñan eta errian sartzerakoan, bi etzeko-andre kalean izketan ari ziranak, gu ikusterakoan; «URA, URA», esanez oiuka asi ziran. Nola bero zakarra zogoan, ura eman nai zigutela uste genun. Bainen etzan ori. Asarre zeuden eta norbaiteri beren kezkek agertu nai.

Naiz Frantzira dijoan bide nagusi ondoan bizi, erri onek ez dauka oraindik urikan. Ura nai ba dute, ibaira joan bear billa.

Bi etzekoandre aien amorrazioa ikaragarria zan. Uste zuten gu Nafarroko Diputazioaren langilleak giñala. Urrutiko iturritik ekarri bearra zeukaten ura, Oldezki arte basotik eta 700.000 pezeta kostatzen. Diputazioak ez die nunbait bear dan laguntza eskeintzen. Orduan errixka au ia ustuta egotia ez da arritzekoa. Nafarro aberatsan, gaurko egunean ezin leike ibaira ur billa joan.

Orain dala berrogei ta amar urte 68 bizilagun zituen errixka onek, gaur bi famili gazte ta andre zar bat bizi dira. Famili baten buru artzaia da, bestena langillea Aoitzen.

—oOo—

Eliza, sarrera erromanikoakin, arri landuakin egina, amairu garrren gizaldikoa da. Bataio ponte ere erromanikoa du. Erretaula berriz oso ona, amazpi garren gizaldikoa, OROZ-BETELUKO erretaularen artilar berdinak egina; Juan de UIZI bere izena. Erdian dagon San Martinen iduria oso ederra da. Eserita dagon Amabirgin bat, belau erdian bere semeakin, amabi garren gizaldikoa, oso polita ta lirafia da. Ba daude ere Gurutze ta San Migel amasei garren gizaldikoa oso onak diranak. Beste bi aldaretxo barrokoak ba ditu eliz onek.

Aldare nagusiko erretaula, barrendik termitak ia dana jana daukate. Sendatu bearra dago, gainerakoan badioa lurrera.

Euskera joan zan aspaldi. Etxeak euskal izenak dituzte; Elizalde, Amorena, Labare, Osutxena eta abar.

ZAZPEko mendi bidean dagon San Zeledonioren basilizatxora ez giñan joan.


Oraindik mezetara erri ontako elizara datozte igandetan, ITOIZKO gizasemeak; bertan dago.

Ara emen ba erri bat arrazoirik gabe iltzera dijoana. NEW YORK inguruan arrapatuko luteke gogotik orrelako toki paketsu ta eroso.

Etorkizunari begira zer egin, Nafarroko Diputazioak pensatu bearra dauka.


Ugain-Borda

Oharra: Zoritxarrez, urakin edo urik gabe ustuz joango diren tokiak baditu Nafarroak. Ez herrietara bakarrik, baserri gehienetara ere bideak egiten ari da Diputazioa. Bi familientzat ere ekarri laizke urak, denak hantxe utzi eta Iruñera ez joatekotan gero.



ORBAIZ HERRIA (Aida argazkia)

ITUREN - ZUBIETA



«Zanpantzar» iaiak

Urteroko legez aurtengo iñauteetan ere, ittuindar-zubietarrak, beren antze eta anaitasuna azaldu dizkigute.

Zanpantzar festak, ez daude galtzeko zorian, bi erri auetan. Ezta urrik eman ere!

Yoare edo ioaleak jotzea —eta nola io ere, iaunak!— odolean daramatan zerbait dute. Ikasteak bakarrak eman etzekazken zerbait.

Iatorrizko antze bat, erakarritako doain bat. Aparteko antze orren lekuko bezala, gaua izan bedi. Eguneko ordu-iaikiñetan bano, gauzko ordu ixiletan, obeki mintzatzen zanpantzar-artistek. Oiek, ez dire axola ikusleetaz. Bizar eta ile luzeen bearrean ere ez. Oiek, barrengo eraginak daramazki jotzera. Beren doinu-gosea asetzeko irrikak bultzatzen ditu ioaleak gerruntzean, ardi larru gainean, burnia baino estuago loturik, giltzurrikeri eragitera, ioko, iakintsu bezain indarsuz.

Zintzarrien mihiak, batean dute dunbatakoa.

Ez ikasiek, iotzaileen trebetasuna gutxietatik begira zaitezte.

Beltzen tan-tan delakoaren pareko duzute ioaleen dunbatakoa —neurriak gorderik, alegia.

Gauaren ixiltasunezko longainapean, urrutieneko denboren asotsa bezala zaigu dunben doinu zoragarria.

Batzuendako, batez ere, euskera, tentelen izkuntza bailitz bezala zokoratu dutenendako!, «zanpantzarra», kaikukeri bat besterik ez da; aitzitik, aunitzendako, «zanpantzarra», aintzinatik datorkigun kondo miresgarri bat da.

Ipar-amerikako kosmonautek ilargia atzeman duten egunetan bertan, teknikaren aldeko aurrerapen izugarrien bidez, bego mardul Heuskal-Herrian, aurrekoengandik iasotako dumba-doinu zoragarria.

Onen galtzeaz, APOLLO 14 berak ere, mermaren bat baluke-ta.

Beude ere, orain arte bezala bateratuak, iñauteetako festek batez ere, elkarzanatzen dituzten ittuindar-zubietarrak.

Premiu Ixurko'ko.

Mintzairari buruz (I)

Joan diren azkeneko sei artikuloetan, batasunari buruz solasean arituz gero, egun (nahiz gauza asko aipatuak izan jadanik), mintzairaren soziologiari doakion zenbait ikus-moldetaz jardukitzera gatozi. Bateon batek, berriz ere betiko telekarekin natorrela erran lezake. Eta arrazoirik duke. Bainan gauza bati ohart bedi: ibaiaren beste ertzean, ideiak eta gauzak ez dituztela amar aldiz erraten, ehun milla bider baizik. Ur horrek bere bidea egiten duela. Eta guk, benetan nahi baldin badugu zerbait erdietsi, ahalik eta sakonkien linkatu behar dugula gure joera. Nahiz aspergarria iduri. Zeren, jende trango dabilla euskerari buruz lan egiten. Eta hori, arras ongi dago, naski; bainan, egia erran, ez gara gure jokabidea tinko oiñarriturik egon dadin sobera axolatzen. Nere iduriko, guretako hain larritasun haundiko tenore honetan, ezinbestezko dugu mintzairaren garrantziak jabeturik egotea. Gero gure inguru-minguruan entzun behar ditugun lau lelokeria direla medio, nahasketa gaitzarrik gerta ez dakigun.

Saia gaitzen, bada, zerbaiten argitzen. Gizona ez da batzuek uste bezain gauza ximple eta abstraktoa. Gizona konplejoa da. Erran nahi baida, gizona ez dela eskuin aldetatik gorri, eta beltz ezkerretatik; demokrata ordu pare batetan, eta anti-demokrata bestetan. Hau dena, ezin daitekeana da. Nahiz batzutan bestetan baino gehiago sena bat ageri; gizona, bat delakotz. Berdin eskuinetatik, nola ezkerretatik. Eta ez da lehenik gizon, eta euskaldun bigarrenik; lehenik itz-dun eta bigarrenik adimen-dun ez den antzera. Den guztia, konplejidade eta zailtasun oroen barrenean, memento berean baida. Erran genezake, aldian aldiko eta lekuan lekuko gizon berezi eta mamitua dela. Hain zuzen, gizona berexi eta zatitu nahi duen ideia bitxia, burjes-ikus-moldetan bazkatzen da. Sozialismoarendako, aldiz, gizona bat da; bereixten ahal ez dena.

Bainan segi dezagun aintzina. Gizona beste gizonakin bizi da. Soziologiari behinik-behin ez dakiok uharte batetan beti bakarrik bizi litakean gizon baten egoeraren azterteza. Hori, besteak beste, «ciencia ficción» deitzen dena dateke. Gizona, beste giza-kidekin artu-emanetan gizondu egiten da; eta horrela doa gizarte osatzen. Eta gizarte bati funtsa ematen dioten artu-emanak, lanarekikoak dira. Lanaren egi-terakoan sortzen direnak, alegia. (Ohart, funtsa erraten dudala; eta ez artu-eman bakarrik). Bainan, lanakin baterat gizonen artean sortzen den lehen gauza —alabarrezko lanabesa bezala— mintzaira da. Kontura gaitzen gainerat, zenbat mende, zenbat kondizionamendu iragan behar izan ziren, gizonak mintzaira bat sortu ahal izateko; eta sortuz gero, aberasteko, egokitzeko.

Gizonak lana sortu du; eta lan egiteak pertsonaren sena eta nortasuna du mamitzen. Egia erran, lanaren zatiketa eta jabeago pribatua deitutakoak gertatu ondoren, jakin ere badakigu prozesu hori, tamalez, ez dela osoki erdiesten. Hala ere, nolabait adierazteko, gizonak bere buruaz duen kontzientzia gero eta ornitugoa dadukala erran genezake.

Orduan, kulturarekiko behar eta lanak asten dira sortzen; horien artean, mintzairari buruz gagozkionez, izkuntzarekiko ikasketak, literatura, eta abar. Bainan, kultura (delako kontzientzia beste itzetan errateko), ekonomiko-politiko-historiko arazoeri lotuta dagoen mailla da. Guztiek zer-ikustekorik haundia beren artean dutelarik; berexi ezin direnak. Horregatik, jakintza-behar horiek, ekonomiko mail batzuk erdietsiz gero agertzen dira. Ez lehenago, ez geroago. Hain zuzen, behar haien betetzeko ahalmena posible delarik. Bata bestearen ondorio eta era berean itur-buru baida. Gizonak, kondaira zehar, honelatsu gabiltza; eten gabeko igi-duran.

Bainan goazen berriz ere mintzairari buruz. Mota desberdinetako soziologo aunitz, ados datozi puntu hauean: mintzaira ez dela —zenbaitzuek uste duten bezala—, gizonak elkar konprenitzeko bitarteko gauza ximple bat bakarrik. Izkuntza, kulturaren funtsa eta erorik nagusiarena dela. Eta kultura, mundua bizitzeko era sakon bat. Mendez mende aberasturikakoa; eta beti osatzen, aldatzen doana. Bestalde —erraten da—, mundua kultura desberdinetaz beterik dago; eta hain zuzen, horretan datza haren edertasuna. Zeren, egia bada izkuntza bat nagusitzen doala, guztiok gero eta gehiago ikasi behar duguna —anglesa— bai eta egia da ere, horrek ez duela lekuan lekuko jatorrizko kultura berezirik ukatzen eta deuseztatzen. Ez eta gutiagorik ere. Aitzitik, dauden desberdintasunak, mantendu eta sutzpertz egin behar dira; horiek baidira gizatasunaren benetako aberastasuna.

Anko Sendoa

¡EL ABRAZO DE LOS MUERTOS...!

Arteche'ren guda denborako egunkaria

Euskaldunentzat garrantzirik aundieneko dan liburu au, España'n «best-seller» bat da, esan nai bada, saltzen diren liburuetatik, geienetariko bat.

Ez gera arritzen. Denak gaude guda denborako gertakizunen gose-egarri. Eta Arteche'ren liburuan agertzen diranak, ez dira beste inun azaldu.

Gorespen aundiak egin diozkate geienak. Marañoñ sendagille-idazle ospetsuak, argitaratu aurretik, itz oiekin goretsi zun: «...Su libro me parece tan admirable como un pedazo cualquiera de la vida, a la que debemos admirar, cuando nos es grato como cuando nos horroriza».

Gure aldetik, zorionik beroenak zuzentzen dizkagu egilleari, ez bakarrik bere «trajedia» zintzoki aitorzen digulako, baño baita ere eta bereziki, guda denboran bere inguruan ikusi eta entzun zituan gertakizun denak, izanikan ere kristau konzienzi batentzat sinisgogorrenak, diran bezela, gordintasunik aundienarekin guri jakinarazteko kemena izandu dualako.

Ortan dago, gure iduriz, liburuaren garrantzi eta meritu aundiena.

Orregatik zaigu atsegin eta orregatik zoriontzen degu egillea.

«El abrazo de los muertos...», irakurtzen dakienarentzat, irakasten eder bat da.

—oOo—

Liburuak merezi eta guk nai bezela aztertzeko, ez daukagu... ez askatasunik ez lekurik.

Egoki eta garrantzirik aundineko diran bi gai aukeratu ditugu: galdera-erantzun bat eta «dos facciones».

GALDERA-ERANTZUN BAT

Lenengo artikuluan galdetzen gendun:

«Zergatik gudako lehen denboran, bizkorki batera eta bestera zebillen gizon ura, Azkoitiko Herrikoetxean» «paz y tranquilidad para lo menos medio siglo» eskeintzen zuan gizon ura, andik denbora gutxira azaltzen zaigu, berak dioenez «...roto, deshecho, humillado y derrotado...»?

Erantzun bakarra da, ez da berterik:

Euskalerriko etorkizunari buruz guda aurretik (ikus Canto a Mari-

chu), eta gudako lehen egunetan egin zituan amets lilluragarri denak, gauek goizera, ekaitz baten burrundapean, erraustuta ikusten ditualako.

Itxu-itxu itxoiten zuan zoriona... «trajedi» beldurgarri bat bihurtu zitzaiohalako.

Gertakizun lazgarri ura, edozeinentzat gogorra zan..., baño bereziki Arteche bezelako sikologu-sentitok batentzat.

Ez gera batere arritzen, orduko kezka bizi guzian irautea.

«DOS FACCIONES...»

Liburuaren itz-aurrean egilleak dio: «...Este es el libro de un vaso cuyo espíritu como el de muchos otros de su tierra, estuvo durante la guerra civil en medio de las dos facciones en lucha, e hizo cuanto le fue posible para echar agua en la hoguera...».

«Dos facciones» iritzi ori ez degu onartzen. Eta «GOIZ ARGÍ» aldizkarian irakurri berri ditugun leerro zontzeitekin argitaratuko degu, zergatik ez degu onartzen.

1970'ko Azaroaren GOIZ-ARGÍ'ko zenbakian irakurtzen degu:

«...Gaur egunean, orduko goraberak (gudakoak) idazteko erreztasuna bai dago. Iñori miñik eman gabe idatzi leikez, jakin ditzaten oraingo gaztedi berriak. Gogoratu ditezten beoien gurasoak, aita edo amak nola ebilli ziran batera ta bestera.

Gure jokabidea ona zan edo txarra, ori geroztik ederki ikusi du munduak.

Ortako, olako naspilletan, garbi jokatzea bezelakorik ez da. Kontzientziaren lasaitasuna, ain sakon

eta aundia danez orretxen poz atsegiña badet.

«...Ez iñori gorrotorik, ortan arkituko degu AN, BESTE MUNDUAN JAINKOAK EMANGO DIGUN SARRIA. ALA BEDI. «Eguzkizar».

—oOo—

«Eguzkizar» izenarekin GOIZ ARGÍ'n agertu diran lerro oiek, bere aldian jokatu zuten euskaldun geienak onartzen dituzte.

Eta guk galdetzen degu: Orrrela jokatzen duan gizon bat, «dos facciones» oietan sartu liteke...?

Ur biga bearrik ote dauka, azaltzen ditugun gizatasuna eta kristautasuna... ITZALTZEKO?

Ez, euskaldunen jokabideak... beste berixtasun bat merezi du.

Guda denboran «dos facciones» oien inguruan, beste zerbait, ixiltzea merezi ez duan eta argitaratzea zail ez dan, beste zerbait ikusi zan.

Jainkuak nai duan egun batez gauzak... diran bezela agertuko dira.

AZKEN ITZ

Atsegingo digu, edo ez, «El abrazo de los muertos» liburuak.

Gauza bat da ziur: Euskaldunen arteko azken gudaren berri jakin nai duan, nai ta naiezko izango du Arteche'ren liburuak irakurtzea.

Ori da, bukatzeko, guk egin genduzken goralpenik oberena.

H.



Euskal izenak



4.- AITOR

Oso zabaldurik dago Euskal-herri guzian Aitor izena. Jatorrasun haundiko hitza bezala jotzen du jendeak. AMAYA liburuak indar eta zabaltasun asko eman zizkion. Geroztik, Aitor euskaldun guzian Aitaxo zaharra dugu; Euskal-herriko Abraham haundia.

Aitor izen berria dela gutxi dakite. Hemeretzigarren mendean, duela ehun bat urte, Chaho jaunari gogoratu zitzaion. Hori bai, anka onez sartu zen munduan eta laister hasi zen indarra hartzen. Aitorren hizkuntza esaten dakio hainbeste mila urte dituen euskerari; eta Aitorren seme dira euskaldun jatorrenak. Denbora gutxian mitos sakon bat sortu da hitz honen inguruan.

LEGEAREN AURREAN

Euskal izenak legez aurrera ateratzeko koropilo gaitzak izaten ditugu; hor gabiltz bizi guzian borrokan eta ez dugu nahi guzia lortzen. Aitor, atsegin gertatu zitzaizen lege-gizoneri eta atal haunditik sartua dugu paper ofizialetan. Tolosan atzera bota ondoan Madril-en on hartua izan zen. Greka eta latinezko mitologi hitzen eskubide bera ba zuela, zioten Direccion General de Registros de-

lakoan. Geroztik ongi ikusia da eta ez dio iñork eragozpenik jartzen.

Gaizki esan dut. Iruñeko parroki berri batean trabak izan berri ditu. Artzai nagusiarengana jo zuen aitak, eta obispadoan paper bat emanik bataiatu zuten Aitor txikia.

ZER ESAN NAHI DU?

Denek galdeera bera; zer esan nahi duen. Los Arcos-tik idatzi zidaten lehenago batez, Aitor izenaren berri nahian. Polita zitzaion, iloba ere ba zuen izen hori zuena eta nundik zertorren jakin nahi zuen. Lagunak galdetzen zioten eta berak ez zekien zer esan.

Euskaldun izatea, nunbait, jakintsuen mailan sarturik egotea da. Hipolito edo Kiteria deitzen den eraldun bati ez zaio behin ere hitz hoiek zer esan nahi duten galdetzen. Gizon ikasien gauza da. Eta euskalduneri bai. Filosofia ikasten hasi beharko dugu denok, arto jorran bezala izen-jorran ere jakiteko. Nik beintzat ez dakit Aitor hitzak zer esan nahi duen; euskaldunen aitaxo zaharra dela dio Viana-ko N. Villoslada-k. Chahori galdetu beharko.

Sagi

PILOTARIAK

Igaro berri den urte hortan pilotari nafartarrek beren gaitasuna erakutsi balin badute, orai hasi berri den urte hortan ere sasoi izugarrian agertzen zaizkigu. Otsaillako illabetean partida aunitz yokatu dira eta hoiaren artean lau berexiko ditugu gure uestez aipamena merexi dutelako.

Otsaillako 14'ean Gaizeizko frontoian aritu ziren, Retegi ta Lajos bikote nafartarra, Ogeta ta Soroaren kontra. Nafartarrek partida izugarria egin zuten. Asmentan gibelean gelditu ziren beren kontrarioak zazpi tanto lerro lerro eginin «sakeak zazpi ta erreferak esperantza» kantatzen zutela, baina gero nafartar bikotea ongi ernaturik zazpigarren pundu hortan adostu eta urrengotik aintzinaldia harturik garaipena ardietsi artaño 22-14. Partida hontan bi atzelariak yoko gaitza egin zuten, Lajos indarrean eta Soroa ere gisa berean. Partida atakatu.

Iru egunen buruan Bergarako plazan berriz Retegi ta Lajos lagun eta oraingoan Ogeta ta Azkaraten kontra. Partida honek ez du aunitz kondatze korik, nafartar bikoteak auzia airez aire bereganatu baizuen 22-8. Gaurko egunean ez da izango bikoterik Retegi ta Lajos menderatuko dutenik.

Otsaillaren 22'an Donostiako Anoetan berriz nafartar bikotea eta oraikoan Pierola ta Lajos elkarrekin, beren kontrarioak Ogeta ta Azkarate zituztela. Partida honek ere ez du sobera kondatze korik, oraingo hortan ere nafartar bikoteak neke aundirik gabe partida irabazi 22-14. Pierola baztandarra hoberean artean eta aski ongi gañera, yokada politik eginik.

Gero Iruñeko Labrit frontoian berriz Lajos bainan oraikoan Oreta bigarrena lagun zuelarik. Partida hau Otsaillaren 25'ean yokatu zuten, nafartarrek Atano ta Tapia gipuzkoar pilotariak kontrarioak zituztela. Lajos ultzamarra aurrelari ari izana da Oreta errazkindarra atzea gordetzen zuela. Partida atakatu gora-bera aundiekien bainan azkenean gipuzkoarrak garaille 22-18. Lauetan hoberena Atano. Partida hau berriz yokatu behar luteke, indarrak berdintsu bait-daude eta pilotariak ere berriz yokatzeko naikeriarekin.

Aurtengo Españako esku-huska ta buruz-buruko pilota Xapelgoari asmenta eman diote eta bertzetan bezala aurtan ere bi malletan berexia dago.

Lenbiziko mallako pilotariak hauek dira: RETEGI (Txapeladuna), LAJOS, BERGARA, TAPIA, PIEROLA, NALDA II, OREXA II, eta ANDUEZA III. Zortzi pilotari hauek ariko dira lenbiziko mallako Xapelgoan. Nor Txapeldun? Berriz Retegi edo Bergara? Lajos? edo zergatik ez Pierola? Hori geroak erranen.

Bigarren mallako pilotarien izenak hemen: DEL VAL, EROSTARBE, EGIGUREN, AIZPURI, OTXOA II, RIOJA, AROTZENA, BARANDIARAN, KARRETERO, TXITXAN, MAIZ, ARRUABARRENA, denetara amabi pilotari.

Lenbiziko mallakoen «Azken-Partida» Donostiako «Anoeta» deitutako frontoian yokatuko da Mayatarren bigarren egunean, eta bigarren mallakoena Tolosan Apirilaren 21'ean.

Anzanarri